

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

479

76/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 16koa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko jarduneko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan, Erizaintzako Zuzendaritzako ondokoa (Lehen Mailako Arreta) lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia.

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen azaroaren 10eko 956/2023 Ebazpenaren bidez, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan, Erizaintzako Zuzendaritzako ondokoa (Lehen Mailako Arreta) lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia argitaratu zen (2023ko azaroaren 22ko EHAA 223 zk.).

Deialdi horretan emandako epearen barruan ez da eskabiderik aurkeztu.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan, Erizaintzako Zuzendaritzako ondokoa (Lehen Mailako Arreta) lanpostua betetzeko deialdia.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2024ko urtarrilaren 16a.

Debabarreneko ESIko zuzendari-gerentea,
ASIER ESNAL ALBIZU.